

---

[ASTIGARRAGA](#)

# Kultur Etxe Zaharraren etorkizuna definitzeko partehartze prozesuaren lehenengo saioa, etzi

Kronika - Erredakzioa 2022ko mai. 9a, 00:00



Arratsaldeko 18:00etan izango da, Kultur Etxe Zaharreko areto nagusian. Saioa Hiritik At enpresak dinamizatuko du, Udalarekin batera.

Kultur Etxe Zaharri etorkizunean emango zaion erabilera herriko behar eta nahiei egokitutakoa izate aldera, herritarren eta eragileen iritzia jaso nahi du Udalak partaidetza prozesuaren bidez. Lehenengo saioa etzi izango da, hilaren 11n, arratsaldeko 18:00etan, Kultur Etxe Zaharreko areto nagusian.

Jakitera eman dutenez, honako hauexek dira une honetan eraikinean eskaintzen diren zerbitzuak: Gaztelekua, AEK, Udalaren Berdintasun eta Enplegu sailak, eta Sagardoetxearen bulegoak. Hori aintzat hartuta, aurreratu dute zerbitzu horietako batzuk epe ertainera bertatik irteeta aurreikusten dela. Hala ere, ez dituzte guztiak lekuz aldatuko; izan ere, batzuk bertan geldituko dira.

Libre geldituko diren espazioei eman ahal zaien erabilerean gainean hausnartu nahi du Udalak, eta horrexegatik jarri da martxan partehartze prozesua. Zehazki, asmoa da herritarrak informatzea eta, horrez gain, bertaratzen diren guztien iritzia jasotzea. Saioak zein partaidetza prozesu osoa Hiritik At enpresak dinamizatuko ditu, Udalarekin batera, eta bertaratzeko deia luzatu dute.

### [Kultura Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

## Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943

kronika.eus

[Erantzun](#) ▼




[HONI BURUZ](#)

[LEGE OI](#)



[HARREMANETARAKO](#)


[RSS](#)



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



[Hernaniko infantil eta promesa mailako neskak txapeldun, Gipuzkoako Batel Txapelketan](#)

Kronika - Erredakzioa  
api 17, 00:00 [Hernani](#)



[Lurraren Askapen Fronteak milaka eukalipto bota ditu Kartola inguruan](#)

Kronika - Erredakzioa  
api 15



[Ostegunean egingo du EH Bilduk zerrendaren aurkezpena](#)

[Udal eta Foru Hauteskundeak 2023](#)  
Kronika - Erredakzioa  
api 17, 00:00 [Hernani](#)



[Giro ederrean bukatu zuten II. CDH Kanpusa](#)

Kronika - Erredakzioa  
api 17, 00:00 [Hernani](#)



[Hernani txapeldunorde, neska jubenilen Euskadiko Txapelketan](#)

Kronika - Erredakzioa  
api 18, 00:00 [Hernani](#)

[Gaur hasiko da Tilos 7 Pasa txapelketa, lehenengo lau partiduekin](#)

Kronika - Erredakzioa  
api 17, 00:00 [Hernani](#)